

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GUARDIAKO UDALA

Guardiako Udalak, udalbatzaren 2021eko irailaren 23an hartutako erabaki bidez, LZ aldatzea onetsi zuen: 2. HETik (B2) 3. HEra (C1) aldatzea eta derrigortasun data (2021eko urriaren 1a) esleitzea

Lanpostu zerrenda tresna bat da, zeinaren bidez administrazio publikoak bere barne egiturak arrazionalizatu eta antolatu, langileen beharrak zehaztu, lanpostuetan jarduteko eskatutako baldintzak definitu eta haietako bakoitza sailkatzen baititu.

Horren harira, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legearen testuategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 74. Artikuluak xedatzen du administrazio publikoek lanpostuen zerrenden bitartez edo antzeko antolaketa tresnak erabilita egituratuko dutela beren antolamendua. Horiek, gutxienez, hauek jasoko dituzte: lanpostuen izena, lanbide-sailkapeneko taldeak, atxikita dauden kidegoak edo eskalak, lanpostuak betetzeko sistemak eta ordainsari osagarriak.

Bestalde, Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 18. artikulua xedatzen du lanpostu zerrenden bidez sortu, aldatu edo kenduko direla lanpostuak.

Hori dela eta, aurreko paragrafoetan azaldukoak ikusita, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 22. artikulua (abenduarien 16ko 57/2003 Legeak aldatu zuen lege hori) emandako eskumenak baliatuz, eta udalaren osoko bilkurak 2021eko irailaren 23an hartutako erabakian oinarrituta.

Idazkari lanpostuaren hizkuntza eskakizuna aldatzeko bozketa egin da, 3. Hizkuntza eskakizuna esleitzeko, 2021eko urriaren 1eko derrigortasun datarekin. Horretarako, erabaki hau hartu da:

Lehenengoa. Aipatutako aldaketa onestea, botazioa egin arte lege ezarritako izapideak betez: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren nahitaezko txostena, loteslea ez dena, aldatetaren aldekoa; negoziazioa eta sindikatuari eta langileen ordezkariari jakinaraztea; eta behin-behineko idazkariaren nahitaezko txostena, aldatetaren aldekoa.

Bigarrena. Aldaketa horrek onesten denetik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena. Lanpostu zerrenda aldatzeko erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Guardia, 2021eko irailaren 24a

Alkate-lehendakaria

LUCIO CASTAÑEDA MARTÍNEZ DE TREVIÑO